

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

INFORMAZIOA ESKURATZEAREN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Zerbitzu Orokorren Batzordeak 2015eko abenduaren 14an izan zuen bileran INFORMAZIO FALTAREN GAINEAN egindako INTERPELAZIOAREN ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Udalek inportantzia handia eman liokete herritarren parte-hartze aktiboari, eta, hala, kontuan izan behar lituzkete haien ideiak eta iradokizunak, eta laguntza materiala eman eta sormenari bultzatzea egin. Era berean, modernizatu ere egin behar dute udalek, teknologia berritzaileak, irisgarriak eta irekiak erabiliz, erabateko gardentasuna ematen dutenak.

Udalaren gardentasuna, izan ere, udalaren webean azaltzen den informazioa baino gauza sakonagoa baita. Gardentasuna erabakiak hartzeko erabiltzen diren metodoekin ere lotuta dago, udalean den aniztasun politikoa gestionatzeko moduarekin eta, batez ere, eskatutako informazioa agudo ematearekin.

Gaur egun Donostiako Udala bigarren dago Estatuko probintzia hiriburuen arteko rankinean gardentasun aldetik, ITA¹ eta DYNTRA² gardentasun irizpiderik gehienak betetzen dituelako.

Baina, nahiz eta Donostiako Udalak emaitza onak dituen gai horretan, eguneroko martxak erakusten diguna da askotan atzeratzen dela eskatutako informazioaren erantzuna ematea, nola barrukoei hala kanpokoei.

Zerbitzu Orokorren Batzordeak orain hurrena izan zuen bileran, Arartekoari gai baten gaineko informazioa berandu ematea gai hark tratamendu zaila zuelako izan zela azaldu ziguten. Ulertu daiteke, ulertu daitekeen bai, zerbitzu teknikoek denbora gehixeago edo gutxiago behar izatea zer lan egitea dagokien, baina:

1. Ez zegoen ezerekin Arartekoari artean informazioa biltzen ari zirela erantzuteko, ezer ere esan gabe gelditu beharrean.

¹ http://webantigua.transparencia.org.es/ita_2014/metodologia_ita_2014.pdf

² <http://www.dyntra.org/wp-content/uploads/2015/12/indice-dam-ayuntamientos-y-municipios-v.1.4.pdf>



2. Atentzioa ematen du txostena irailaren azken alderako prest izan eta urriaren azken aldera arte ez erantzuteak.

Bistan dago arazoak daudela bete behar diren epeak betetzeko eta eskatutako informazioei erantzuteko. Hori dela eta hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio barruko informazio fluxuen azterketa bat egiteko, informazioaren kontrola hobetu eta erantzuteko epeak murrizteko bidea izateko. Txosten horrek eskatutako informazioari erantzutea zergatik atzeratzen den ere aztertu beharko du.
2. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio betetzeko beste erakunde batzuen errekerimenduak ere, eskatutako informazioei garaiz eta ondo erantzun ahal izateko.

Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia